

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5577

EBAZPENA, 2023ko azaroaren 21ekoa, HABEko zuzendariarena, udal titulartasuneko euskaltegi publikoek arbel digitalak eta hauei dagozkien euskarriak eskuratu ahal izateko aurkeztutako eskabideak onartu eta eskatzaile bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa ezartzen duena, udal titulartasuneko euskaltegi publikoek arbel digitalak eta hauei dagozkien euskarriak eskuratu ahal izateko dirulaguntzak arautzen dituen 2023ko maiatzaren 10eko Ebazpenak ezarritakoaren arabera.

Deialdira aurkeztu diren (eranskinean zerrendatzen diren) eskatzaileak udal titulartasuneko euskaltegi publikoen titularrak dira eta onuradunek bete beharreko baldintzak betetzen dituzte.

Euskaltegiek dirulaguntza jasotzeko eskatu dituzten ekipamendu teknologikoak deialdi honetarako xede diren arbel digitalak eta horien euskarriak dira.

Kontuan hartuta, deialdiaren eranskinean adierazitako gehieneko zenbatekoa ezin dela gainditu eta diruz lagundu nahi den ekipamendua erosteko kostuaren erdia laguntzen dela diruz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Eranskinean zerrendatzen diren udal titulartasuneko euskaltegiei, arbel digitalak eta horiei dagozkien euskarriak eskuratu ahal izateko 43.674,07 euroko dirulaguntza onartzea, euskaltegi bakoitzari esleitutako kopurua eranskinean jasotzen delarik.

Euskaltegi bakoitzaren gehieneko kopurua da esleituko den dirulaguntza.

2.– Emandako dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko zaio erakunde onuradunari, gas-tua behar bezala zuritu ondoren, eta ebazpenaren 10. oinarriak aurreikusitako irizpideen arabera; hala behar balitz, kitapen-ebazpen baten bitartez doituko da.

3.– Mastitxu Euskaltegia-Leioako Udalaren eskaera ez onartzea, eskaera epez kanpo eskatu izanagatik.

Ebazpen honek administrazio-bideari amaiera emango dio. Horren aurka erakunde interesdunek borondatezko berraztertze-errekurtsoa jar dezakete, HABEren zuzendari nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Donostia / San Sebastian, 2023ko azaroaren 21a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

ERANSKINA

UDAL TITULARTASUNEN EUSKALTEGI PUBLIKOEI ESLEITUTAKO KOPURUAK
ARBEL DIGITALAK ETA HORIEI DAGOZKIEN EUSKARRIAK ESKURATU AHAL IZATEKO

Erakunde titularra	IFK	Diruz lagundutako materiala	Laguntza
Galdakaoko UE	P4804400B	4 arbel digital, hormetarako 4 euskarri eta horien instalazioa	5.333,68 €
Getxoko UE	Q4800695A	2 arbel digital, 2 euskarri gurpildun eta horien instalazioa	1.929,95 €
Barakaldoko UE	P9801701E	11 arbel digital, 11 ordenagailu eta horien instalazioa	14.939,79 €
Erandioko UE	P4812400B	2 arbel digital, 2 euskarri eta horien instalazioa	2.680,16 €
Leintz UE	P2000010E	Arbel digital bat, gurpildun euskarri bat eta instalazioa	1.362,08 €
Basauriko UE	P9801902I	2 arbel digital, 2 ordenagailu, euskarri bat eta horien instalazioa	4.121,87 €
Urretxuko UE	P2000007A	2 arbel digital, 2 euskarri eta 2 aver cam bideokonferentzietarako	2.175,58 €
Errenteriako UE	P2007200E	Arbel digital bat, ordenagailu bat, euskarri gurpildun bat eta horien instalazioa	2.226,91 €
Portugaleteko UE	P4809100C	6 arbel digital eta horien instalazioa	6.788,10 €
Hondarribiko UE	P2003700H	Arbel digital bat, gurpildun euskarri bat, bideokonferentzietarako sistema eta instalazioa	2.115,97 €
			43.674,07 €

Zerrendatutako materiala erakunde titularrek eskabideetan deskribatutakoa izango da.